

QuarkXPress-erako hitz-zatitzailea

Eskuliburua



Egilea:




www.eleka.net



Instalazioa.

ELEKA hitz-zatitzailea Quark Xpress 6.x bertsiorako gehigarri bat da eta beste gehigarriak bezala instalatzen da: nahikoa da fitxategia Quark Xpress 6.x instalatzeko direktorioan dagoen XTension karpetan kopiatzea, irudian azaltzen den bezala.






Konfigurazioa eta erabilera.

ELEKA hitz-zatitzailea gainerako hitz-zatitzaileak bezala konfiguratu eta erabiltzen da. Kontuan hartu behar den xehetasun bakarra da, zoritxarrez, Quark-ek ez duela euskara erabiltzeko aukerarik ematen bere produktu-lerroan. Ondorioz, euskaraz editatu nahi ditugun paragrafoak beste hizkuntza batez markatu beharko ditugu.

Paragrafo-estilo bati dagokion hizkuntza aukeratzeko menua da hurrengo irudia. Kasu honetan, nazioarteko ingelesa aukeratu dugu euskaraz idatziko ditugun paragrafoen hizkuntza gisa.



Orain, Quark XPress-i esan behar diogu zer motor erabili behar duen nazioarteko ingelesa hizkuntza-marka duten paragrafoetan hitzak zatitzeko. Horretarako, ezarpenetako leiho honetara jo besterik ez dugu.



Urdinez markatuta agertzen den lerroan erakusten den bezala, nazioarteko ingelesa hizkuntza-marka duten hitzak zatitzeko, “ELEKA Euskara” metodoa erabiltzeko esaten diogu.

Bi pauso horiek baino ez dira egin behar, hitzak zatitzeko orduan Quark-ek ELEKA Hyphenation tresna erabil dezan.